


**Hainbat jaialditako bertsoak**

ETB1 • 14:30etan

Ataungo San Martin, Donostia, Bilbo eta Altzoko bertso saioetako zatiak emango dituzte, beste batzuen artean.



**gaurko filmak** Ane Muñoz

■ **EL CREPUSCULO DE LOS AUDACES.**

Joseph Pevney zaharraren itsas giroko abentura arin honek oso aktore talde polita biltzen du: Rock Hudson eta Cyd Charisse izarrek, adibidez, rol nagusiak jokatzen dituzte. Entretenigarria da.

■ **UN SEÑORITO EN NUEVA YORK.**

Daniel Day-Lewis aktore erakargarriak beste aktore erakargarri batzuekin batera protagonizatu duen komedia arin hau gustura ikusiko duzue ziurrenik. Ejekutibo britainiar arrunt batek Estatu Batuetan izango dituen gorabeherak umorez erakusten ditu, kultura ezberdinen arteko txokeak eraginiko egoera barregarriak eta gaizki ulertzeak aitzakiatzat hartuz.

■ **CARROS DE FUEGO.**

Vangelisen soinu banda zoragarriari esker, besteak beste, mundu osoari arrakasta handiz buelta eman dion filma, adin guztietako ikusleei gomendatu nahi dizuet. Atsegina da, hunkigarria, 20ko hamarkadako istorio erreala baten zinematatze zuzen eta onargarria. Garai hartako Joko Olinpikoetako lasterketa proba nagusian parte hartu zuten bi mutil gazte ezagutuko ditugu. Argumentuaren muina, bien arteko harremanean datza. Ben Cross ezagunak korrikalari horietako bat antzetzten du.

■ **BI ALDIZ BAKARRIK BIZI DAITEKE.**

Sean Connery izarra, James Bonden rolean, emakume lirainez inguratuta azalduko zaigu, 007 agente mitikoaren abentura guztietan bezala. Diru eta baliabide askorekin ekoiztutako atal hau, berriz, sail amaigabean arruntetako da; akzioa Japon aldean kokatua dago, eta, tira, efektu garesti eta ikusgarriz apainduriko eszenaz josita badago ere, ez da oso nabarmengarria.



Bette Davis eta Barry Sullivan *La egoista* filmean.

**Bette Davisen neurria egokitutako melodrama hunkigarria**

■ **LA EGOISTIA.** Zuri-beltzeko melodrama hunkigarri eta samur hau zuzen eta interesgarritzat dut, besteak beste lehen mailako rolean azaltzen den Bette Davisek egiten duen antzezpen miresgarriari esker. Argumentua, berez, nahikoa arrunt eta tipikoa den arren, Curtis Bernhardt txukun errealizatu zuen, lan fina lortuz. Bette Davis zorrotz batek eta senarrarena egiten duen Barry Sullivanek euren egunerokotasun zailaren lekuko izatera gonbidatuko gaituzte, eta ez da, ez, une gozagarria igarotzeko aukera txarra.

<b>Carros de fuego</b> ♦♦♦	1981, Hugh Hudson	15:30 ETB2	<b>Formula mortal</b> ♦♦	1988, Doo Yong Lee / S. Thomas	22:30 ETB2
<b>Voluntad de hierro</b> ♦♦	1993, Charles Haid	15:35 TVE1	<b>Un tueur dans la foule</b> ♦♦	1976, Larry Pearce	22:50 TF1
<b>Condesa por un día</b> ♦♦	1994, Ron Lagomarsino	15:35 A3	<b>Bi aldiz bakarrik bizi daiteke</b> ♦♦♦	1967, Lewis Gilbert	22:55 ETB1
<b>El cielo en llamas</b> ♦♦	1998, Dan Lerner	16:25 T5	<b>Desaparecido</b> ♦♦	1998, Steve Traxler	23:40 TVE1
<b>Speed 2</b> ♦♦	1997, Jan de Bont	17:00 C+ (e)	<b>Le testament du docteur...</b> ♦♦♦♦	1932, Fritz Lang	00:05 F3
<b>Sucedio entre las doce y las tres</b> ♦♦♦	1976, Frank D. Gilroy	17:40 ETB2	<b>La egoista</b> ♦♦♦	1951, Curtis Bernhardt	01:45 T5
<b>El crepúsculo de los audaces</b> ♦♦♦	1958, Joseph Pevney	17:50 TVE1	<b>La ausencia</b> ♦♦♦	1993, Peter Handke	02:20 La2
<b>La trêve</b> ♦♦	1996, Francesco Rosi	20:35 C+ (f)	<b>Perversión en las aulas</b> ♦♦♦	1972, Sidney Lumet	02:25 TVE1
<b>Forever young</b> ♦♦	1991, Steve Miner	20:50 TF1	<b>Siete minutos para morir</b> ♦♦	1989, Klaus Maria Brandauer	02:50 A3
<b>Pendez-les haut et court</b> ♦♦♦	1968, Ted Post	20:55 F2	<b>Un señorito en New York</b> ♦♦♦	1988, Pat O'Connor	03:45 ETB2
<b>La mansión</b> ♦♦	1995, Rob Hedden	21:40 TVE1	<b>Al filo del hacha</b> ♦♦	1987, Jose Ramon Larraz	04:05 TVE1
<b>Después de una guerra</b> ♦♦	1997, Dick Lowry	22:00 C+ (e)	<b>Aquel hombre de Tanger</b> ♦♦	1950, R. Elwyn / L. M. Deldago	04:05 La2

♦ TXARRA ♦♦ ESKASA ♦♦♦ BALEKOA ♦♦♦♦ ONA ♦♦♦♦♦ BIKAINA

**ETB 1**

- 07:15: **Gure lanbide zaharrak.**
- 07:45: **Dinastia gorria.**
- 08:10: **Euskal Herrirako garaia.**
- 08:20: **Superbat.** Marrakzi bizidunak eta telesailak. Yogiren taldea, Hirukiak, Fudge, Scooby Dooren misterioak II.
- 10:15: **Egi bidean.**
- 10:30: **Meza Santua.**
- 11:30: **Kirolez kirol.** Atletismoa: Elgoibarko Nazioarteko Mugertzakrossa.
- 14:00: **Gaur egun.** Albistegia.
- 14:30: **Hitzetik hortzera.**
- 15:20: **Izar bila: gazteak.**
- 16:30: **Kirolez kirol.** Futbola atarikoak. Real Sociedad-Alaves. Pilota: Eskuz binaka, Espainiako txapelketa. Hatxa-Almandoz/Gonzalez-Apeztegia (17:00etan). Eskuz binaka: Titin III-Goñi III / Goñi II- Zezeaga (18:00etan).
- 19:30: **Gaur Eguna.** Albistegia.
- 19:50: **Kirolez kirol.**
- 21:30: **Easy Peasy.**
- 22:55: **Zine Oro.**

**Bi aldiz bakarrik bizi daiteke.**

Zuzendaria: Lewis Gilbert. Aktoreak: Sean Connery, Donald Pleasance, Mie Hama. 1967.

- 00:50: **Hitzetik hortzera.**
- 01:40: **Hitzaro.**
- 02:10: **Elkartasunaren bideak.** Dokumentala.
- 02:40: **Trantsizioa Euskadin.** 1970. *Burgosko epaiketa.*
- 03:30: **Tigrearen lurraldea.** Dokumentala.
- 04:25: **Nafarroako basabizitza.**
- 04:50: **Dibleyko bikarioa.**
- 05:20: **Euskaldunak eta itsasoa.**
- 05:55: **Euskal pintore eta eskultoreak.** *Dario de Regoyos.*
- 06:30: **Irabazteko jaiok.** *Doyle eta ardi rodeoa.*

**ETB 2**

- 08:10: **Desde el gallinero.**
- 08:35: **Del país de los vascos.**
- 09:00: **Tiempo para Euskal Herria.**
- 09:20: **Trikitixa: La caja sonora.**
- 10:05: **Luar.**
- 11:00: **Animales en familia.** Dokumentala.
- 11:55: **Europa Europa.**
- 12:25: **Palabra de ley.**
- 12:55: **Lengua viva.**
- 13:25: **Sustraina.**
- 14:00: **ETB kirolak.**
- 14:28: **Teleberri.**
- 15:30: **Zinema.**
- Carros de fuego.** Zuzendaria: Hugh Hudson. Aktoreak: Ben Cross, Ian Charleson, Alice Krige.
- 17:40: **Zinema.**
- Sucedio entre las doce y las tres.** Zuzendaria: Frank D. Gilroy. Aktoreak: Charles Bronson, Jill Ireland, Douglas Fowley.
- 19:20: **La peña.**
- 20:10: **Zoombados.**
- 20:58: **Teleberri.**
- 21:30: **El derby.**
- 22:30: **Camara acción.**
- Formula mortal.** Zuzendaria: Doo Yong Lee eta Scott Thomas. Aktoreak: Linda Blair, Stuart Damon, Bill Erwin. 1988.
- 00:15: **La noche fantástica.** Más allá del límite: Regeneración / Música de las esferas. Historias de la cripta (01:45ean): Exito de taquilla. Cuentos a sombrosos (02:40ean): Cámara ¡Acción! Extraño pasado. Mr. Magic.
- 03:45: **Zinema.**
- Un señorito en New York.** Zuzendaria: Patt O'Connor. Aktoreak: Daniel Day-Lewis.
- 06:05: **Europa Europa.**
- 06:30: **Empresa vasca.**

**irratia** ♦

Arrate Irratia: FM 87.7 • Bizkaia Irratia: FM 102.6 • Bilbo Hiria: 96.0 • Euskadi Irratia: OM 1.161 • Euskalerrria Irratia: FM 91.4 • Herri Irratia: FM 99.8 / OM 1224 • Gure Irratia: FM 106.6 • Irulegiko Irratia: FM 91.08 • Segura Irratia: FM 89.2 • Xiberoko Botza: FM 88.8 • Xorroxin Irratia: FM 107.5.

**Euskadi Irratia.** Egunkarietako begiratu emanaz hasiko dute goiza Arantxa Arzak eta Jexux Artetxek 10:00etan. Donostia Hiria sariak jaso dituzten idazleak izango dira mintzagai eta, ondoren, Nikolas Aldai-ekin batera helduko da bertso-zaharren txanda. Gainera, 11:00etatik eguerdira arte Epelde, Iturbide eta Montte trikitilarien soinuek alaituko dute goiza. Eta musi-

karen ostean, Euskal Herriko momia biriburuz hitz egingo du Lurdes Errastik. Aditu honek Errigoitiko *Santu Beltza* eta Arrasateko Ines Ruiz de Otorari buruzko gorabeherak azalduko ditu saioan zehar.

**Herri Irratia.** Goizean Goiz saioarekin hasiko dute eguna Asier Tutor eta Nagore Oikotzek, 08:00etatik 13.30etara. 11:30ak

inguruan Elgoibar aldera joko dute Muger-tza memorialaren berri emateko. Izan ere, Elgoibarko krossak beteko du 11:55etatik 13:15etara arteko saio berezia. Arratsaldetan, Jesus Torquemada helduko da bere *Brújula* saioarekin, 14:30etatik 15:30etara bitartean. Eta 16:30etan, futbola: Real Sociedad-Alaves euskal derbiaz gozatzeko aukera izango da, zuzenean.